

**ABA** TXIKI

**Bizkaia**  
bizkaibus

Mikelaibusek oinarria herbitzetan jarria  
Bizkaia en la escuela y la Opera

Miquel Ortega

# EL GUARDIÁN DE LOS CUENTOS

14, 15, 16 | Martxoak /  
Marzo 2026



A Arriaga Antzokiari eta ABAO Bilbako Operari elkarlanean antolatuta /  
Una colaboración del Teatro Arriaga y ABAO Bilbao Opera



**ABA** | **BILBAO  
OPERA**

# El Guardián de los Cuentos

Ópera en un acto

Música: Miquel Ortega

Libreto: Andrés Martorell



GIDA DIDAKTIKOA  
DIANA ESCRICHE POLA  
HEZKUNTZA - SAILA  
KITHARA MUSIKA - ESKOLA

## AURKIBIDEA

Sarrera	4
Historia	4
Operaren elementuak	5
<b><i>El guardián de los cuentos</i></b> operaren argumentua	12
Opera baten prestaketa	13
Eskola-emanaldia: entsegu orokorra	14
Jarduerak	15





## SARRERA

*El guardián de los cuentos* ekitaldi bakarreko opera da, publiko guztientzat, Miquel Ortégaren musikaz eta Andrés Martorellén libretoaz osatua, Nafarroako Ganbera Abesbatzaren enkarguz 2010ean estreinatua.

Ariadna eta Horazio nerabeen abenturak kontatzen dizkigu. Liburutegi zahar batean isilpean sartuko dira eta Horacius esnatuko dute, Ipuinen Zaindaria, hain zuzen ere, liburutegiko sarreran geldi-geldirik dagoen bustoa. Bi protagonistak liburu magiko batek xurgatuko ditu, non ipuin ezagunetako pertsonaia asko bizi diren. Haiekin batera, abentura zirrargarriak biziko dituzte liburutik ateratzeko modua aurkitzeko, baina zaindaria haien helburua eragozten saiatuko da.

Ekoizpen honetan, fantasia, umorea, ipuin tradizionalak eta literaturari buruzko elementu hezigarriak uztartzen dira.



## OPERAREN ELEMENTUAK

Opera, italieraz obra, Italian jaio zen. Musika-genero honetan, elementu asko daude tartean: musika, testua, antzerkia, dantza, eszenografia eta argiztapena.

Hainbat iturriren arabera, Ottavio Rinuccini poetak eta Jacobo Peri musikariak konposatu zuten Dafne, lehen operatza jo litekeena, 1597an Florentzian, baina ez dago haren erreferentziarik edo partiturarik. Horrenbestez, historiak L'Orfeo jotzen du lehenbiziko operatza, Claudio Monteverdik 1607an konposatua.

Hasieran, operak nobleen jai eta ospakizunetan antzezteko konposatzen ziren, eta haien argudioak mitologia klasikoan oinarrituta zeuden. Operaren arrakastaren ondorioz, gizarteratu egin behar izan zen; hala, garaiko antzoki handien programazio nagusiak bete zituen, leihatilako sarrera-salmentak diru-sarrera ikaragarriak eragin zituen eta libretoen gaiak hedatu egin ziren.

Espanian, operaz gain, zarzuela izeneko musika-forma sortu zen, abestutako eta hitz egindako pasarteak tartekatzen zituena. Lehen obrak Zarzuela jauregian zegoen antzokian antzezten zirelako du izen hori.





## OPERAREN ELEMENTUAK

### Musika

Musika operaren elementu erabakigarria da, ekintza sortzen duelako, zentzua ematen diolako, eta pertsonaien emozioak eta gogo-aldarteak eragiten dituelako. El guardián de los cuentos lanaren konpositorea Miquel Ortega da.

Miquel Ortega Bartzelonan jaio zen, 1963an. 17 urte zituela, pianista-postua lortu zuen Gran Teatre del Liceun, eta gero opera-denboraldiko Maisu Kontzertatzaile aritu zen Madrilgo Zarzuelako Antzoki Liriko Nazionalean.



Opera-zuzendari onenetakotzat jotzen da, eta obra batzuk ere konposatu ditu: *La casa de Bernarda Alba*, *El dret patern*, *Somni de nadal*, *Titus Andronicus* eta *El caballero de Olmedo*.

Hau da Miquel Ortegak musikari buruz duen ikuspegia:

*“El guardián de los cuentos* operarako, komenigarria iruditu zait musika oso zuzenekoaren nire ildoari eustea, hau da, publikoarekin berehala konektatzea, Bestiario nire ballet kantatutako egin nuenaren antzera. Behin esan nuen zinemako musikak opera- eta sinfonia-tradizio handitik edan zuela, batez ere poema sinfonikotik, musika programatikotik eta, beraz, argumentu bati lotua beti.

Musika- eta eszena-sorkuntzan anabasa dagoen garai honetan, uste dut heldu dela zinemak operari hark utzi ziona itzultzeko ordua, eta zinema-konpositore gehienek hizkuntza opera-konpositoreena baino interesgarriagoa da une honetan, salbuespenak salbuespen.

*El guardián de los Cuentos* operarako musika soinu-banda da, alegia, protagonistek bizi dituzten gorabeherak ilustratzen dituen musika. Beste musikari batzuen artean, Puccinik, baita Verdik ere, beren sorkuntzetan egiten zuten gauza bera da, “avant la lettre” soinu-bandak, egoerarako musika deskribatzailea, publikoak sentituko zituen melodiaz eta egoera hau edo hori edo aldarte-gogo hau edo hori adieraziko ziguten leitmotivez beteak”.

Hemen, opera honen partituraren pasarte bat, *Pinotxorena*:

471 *mf*

Pin. Yo soy Pi - no-cho, soy u - na ma - rio - ne - ta. Soy un mu-

475

Pin. ñe - co, un pe - le - le, un mo - ni - go - te. Y aun - que a ve - ces me - rez - co un buen a - zo - te, yo sé bai-

479 (Baila)

Pin. lar y to - car la pan - de - re - ta. Yo soy la bo - la, y el mun - do es mi ru - le - ta. Soy un po - bre in - fe-

483

Pin. liz, — un pas - ma - ro - te. Ma - de - ra de los pies has - ta el co - go - te. Ser un ni - ño nor-

487

Pin. mal, — e - sa es mi me - ta.

### ***Pinotxoren musika-pasartea eta letra***

Yo soy Pinocho, un niño de juguete;  
cuando miento me crece la nariz.  
Y aunque a veces cometo algún desliz  
yo siempre alcanzo a burlar mi mala suerte.



Yo soy la bola y el mundo es mi ruleta;  
soy un pobre infeliz, un pasmarote.  
Madera, de los pies hasta el cogote;  
ser un niño normal, ¡esa es mi meta!



### ***Los enanitos de Blancanieves-en musika-pasartea eta letra***

Oleré el ajihí,  
el orégano, el orégano, el ajonjolí,  
bacalao al pil-pil,  
y conejo y cone... con alioli olí.



Olerele olerele olerele olerele  
olerele olerele oleré el ají,  
Olerele olerele olerele olerele  
olerele olerele oleré el ajonjolí.



Tenemos hambre de «kartofen»  
¡Y nuestras tripas crujen!

## Testua

Opera guztiz abestutako antzezlan da; beraz, libretoaren garrantzia nabarmendu behar da, hots, operaren testuarena. Originala izan daiteke, edo idazle klasikoen lanetan oinarrituta egon, Shakespeare, Dumas edo Victor Hugoren obretan, adibidez.



***El guardián de los cuentos*** operaren libretoa Andrés Martorell zinema, telebista eta irratiko gidoilariak idatzi du. Nafarroako Unibertsitatean kazetaritzan lizentziatua, hainbat hedabidetan kolaboratu du eta zenbait argitalpenen zuzendaria izan da.

Hemen, opera honen libretoaren pasarte bat, *Pinotxorena*:

PINOCHO

(con acento italiano)  
Porca miseria. ¿Qué cosa e questa? ¡Me han despertato en mitad de la siesta!

ARIADNA

(a Horacio)  
¡Es Pinocho!

HORACIO

Ah, sí...¿Quién?

ARIADNA

Pinocho, un muñeco de madera, que gracias a un Hada madrina...

*Pinocho se fija en Ariadna, y corta la conversación.*

PINOCHO

Ma qué veo. ¡Una ragazza belísima!

*Besa la mano a Ariadna. Habla con gestos de galán.*

PINOCHO (continúa)

(de carrerilla)  
Tu no sei di per cuí. ¿Cherto? ¿Come ti kiami? ¿Sei estudiante? Prendiamo un café, sposate con me.

*Intenta besarla. Ariadna se lo quita de encima.*

ARIADNA

¡Un respeto!

HORACIO

(al público)  
¡Italianos! Siempre pensando en lo mismo.

ARIADNA

(a Pinocho )  
¿Tú no deberías estar en la escuela?

PINOCHO

Sí, ma... Non só dove si trova.

HORACIO

(a Ariadna)  
¿Qué dice el espaguetti este?

ARIADNA

Dice que no sabe dónde está la escuela.

(a Pinocho)

¿Es que no has visto el letrero?

*Ariadna señala un cartel de "Scuola", con una flecha indicadora.*

## Eszena-zuzendaria eta musika-zuzendaria

**Eszena-zuzendaria** operaren eszenaratzearen arduradun artistiko eta tekniko da. Haren eginkizun nagusia ikuspegi sortzailea bateratzea da, alegia, gidoia interpretatuz antzezipena, argiztapena, eszenografia, jantziak eta soinua koordinatzea.

**Musika-zuzendaria** dena behar bezala entzuteaz arduratzen da, konpositoreak partituran jasotakoari jarraikiz. Orkestra zuzendu ez ezik, ekoizpen bateko musikari, abeslariari, koroari eta orkestrari dagokien guztia erabaki ere egiten du.

## Jantziak



Pertsonaiak janzteaz arduratzen den pertsonak eszena-zuzendariaren ideia interpretatzen du, istorioa estetika edo garai jakin batean kokatzeko, eta pertsonaiek soinean daramatzaten arropak diseinatu eta josten ditu.

*El guardián de los cuentos* operako jantzien ezaugarri nagusia da material birziklatuz eginak direla. Arropetan globoak, gomazko eskularruak, bizikleten gurpilak... erabili dira.

*El guardián de los cuentos* ikuskizuneko jantzien arduraduna Edurne Ibáñez da, 1979an Iruñean jaioa. Espainiako diseinatzaile gazte onenaren saria irabazi du, bai eta sormenaren eta modaren munduko beste hainbat ere.



## Eszenografia

Eszenografia agertokian dauden elementu guztiek osatzen dute; haien gainean garatzen da ekintza, eta eszenaratutako operaren estetika irudikatzen dute. *El guardián de los cuentos* lanean, eszenografia liburutegi batetik abiatzen da mundu magiko batera, ipuinen liburu handiaren barrualdera, hain zuzen ere, irudimenean bakarrik existitzen den mundu batera.



### Argiztapena

Argiztapena operak izango duen kolorearen diseinua da, erabiltzen diren fokuen eta efektuen konbinazioaren arabera. Paraje epeletara eraman gaitzake, egun eguzkitsuetara, edo, alderantziz, gau ilunetara. Gaur egun, funtsezko elementua da operan.



### Abeslariak

Oro har, honako ahots hauek daude operan: gizonetzkoenak eta emakumezkoenak:

♀	SOPRANOA
	MEZZOSOPRANOA
	KONTRALTOA
♂	KONTRATENORRA
	TENORRRRA
	BARITONOA
	BAXUA

**Badakizu...?**

Castrati-ak tinbre femenino eta ahots-indar maskulinoa zuten gizonak ziren; pubertaroan ahotsa aldatu aurretik barrabilak zikiratzen zizkietelako zuten halako ahotsa.

## Korua

Korua aldi berean abesten duten pertsonen multzoa da. Greziako antzerkian du sorburu, eta ahots batez kantatzen zuten gizon-emakumeek osatzen zuten. Gaur egungo operan, ordea, lauzpabost ahotsek osatzen dute: tenorra, baritonoa, baxua, sopranoa eta mezzosopranoa. Haurren ahots zurien koruak ere badaude. *El guardián de los cuentos* operan, hainbat ahotsez kantatu eta dantzatzen duten hurrek osatzen dute korua.



## Orkestra

Orkestra operaren partitura jotzen duen musikari-taldea da. Hainbat instrumentu-familia ditu: haria, haize-zura, haize-metala eta perkusioa. Hainbat orkestra-mota daude, tamainaren arabera: ganberakoa, klasikoa edo sinfonikoa.

### ❖ Hari-instrumentuak

Harien bibrazioak sortzen du soinua. Honelakoak izan daitezke: hari igurtzia (biolina, biola, biolontxelo eta kontrabaxua), hari kolpatua (pianoa), hari pultsatua (harpa).

### ❖ Haize-instrumentuak

Tutu baten barruan bibratzen duen aire-zutabe baten bidez egiten dute soinua. Zurezkoak (zeharkako flauta, oboea, klarineta eta fagota) edo metalezkoak (tronpeta, tronboia, tronpa eta tuba) izan daitezke.

### ❖ Perkusio-instrumentuak

Makila, mailu, zotz edo esku batek jo, astindu edo marruskatzean entzuten da. Afinatuak edo afinatu gabeak izan daitezke. Orkestra baten perkusio-atalak tinbalak, bonboa, platertxoak, triangelua, pandereta eta halako instrumentuak izan ohi ditu.



## EL GUARDIÁN DE LOS CUENTOS OPERAREN ARGUMENTUA

*El guardián de los cuentos* operak, musikaren eta kantuen berezko balioez gain, ezbeharrak gaintu ahal izateko irakurketaren eta adiskidetasunaren garrantzia nabarmentzen du.


Ariadna eta Horazio gaur egungo bi gazte dira. Neska bere ikasgelako argiena da, eta horregatik besteen gaitzespena sentitzen du. Horazio, aldiz, mutilik ezagunena da, baina desastre hutsa ikasketetan, gorroto ditu liburuak. Ariadna Horaziorekin maiteminduta dago ezkutuan, eta ikasketekin laguntzea proposatu dio; horretarako, liburutegi zaharrean jarri du hitzordua. Orduan, gertaera magiko bat gertatuko da: Antonius, Ipuinen Zaindaria irudikatzen duen harrizko bustoa, azaldu eta hitz egiten hasiko da hurrek esnatzen dutenean.

Antoniusen Ipuin Guztien Liburuan sartu eta bertan harrapatuta geratu ziren haurren elezaharra kontatuko du. Horaziok gogoz hartu du liburu batean sartzeko ideia, horrela irakurri behar ez izateko. Ariadna adiskideari asmo hori burutik kentzen saiatu bada ere, azkenean Ipuin Guztien Liburuan sartu dira biak, Antoniusen bitartez.

Bertan, nerabeak ipuin ezagunenetako batzuetan zehar ibiliko dira, hala nola *Edurnezuri*, *Pinotxo*, *Hansel eta Gretel* edo *Loti Ederra* kontakizunetan, non umoreak, misterioak eta abenturak beren lekua duten. Arriskua areagotu egingo da liburuan betiko harrapatuta gera daitezkeela jabetzen direnean. Ariadnaren laguntzaz baino ezin izango dira irten mundu errealerara.



## OPERA BATEN PRESTAKETA





## ESKOLA-EMANALDIA: ENTSEGU OROKORRA

“Entsegu orokorra” obra estreinatu aurretik egiten dena da, antzeztu nahi den ikuskizunaren berdin-berdina (jantziak, makillajea, argiak...). Obra estreinatuko den tokian bertan egin beharko da.

Ez da etengo, eta taldeko profesional bakoitzarentzat ezarritako jarraibide guztiak errespetatuko dira, nahiz eta antzeztu bitartean doikuntza tekniko edo artistikoren bat egon daitekeen.

Amaitutakoan, balorazio orokorra egingo da, estreinaldirako edozein kontu hobetzeko edo zuzentzeko.

### ANTZEZPENA IKUSI BITARTEAN IZAN BEHARREKO JOKABIDEA

<b>O</b> rdenatuta eseriko gara, aretozainek lagunduko dizute zure besaulkira
<b>P</b> resta zaitetz antzezpena arretaz ikusteko eta itzali zure telefonoa
<b>E</b> ntzun ezazu musika eta murgil zaitetz istorioan
<b>R</b> obotak bezala, ez jan eta ez edan
<b>A</b> sko txalotu, gogotsu, protagonistek eskertuko dizute

#### Badakizu...?

XV. mendean, antzezlanak komedia-antzokietan antzezten ziren. Aktoreak beti zebiltzan kirioak dantzan zenbat ikusle etorriko ote ziren, sarrerak ez baitziren aldeztu aurretik erosten. Bereziki, jende aberatsa bertaratzea nahi izaten zuten, emanaldiaren amaieran dohain dirutsuenak ematen zituztelako.

Jende dirudun ugari zegoen jakiteko modu bat zen sarreran zenbat zaldi-gurdi zeuden zain ikustea. Asko baziren, zaldien kaka-piloa egongo zen lurrian. Harrezkero, arte-munduan ohikoa da zorte ona eta arrakasta opatzeko esamolde hau entzutea: **KAKA ASKO! Bada, horixe bera!**




## JARDUERAK

Sor dezagun geure opera!

*f* Opera antzertuko duen konpainia artistikoaren izena zehaztu eta haren logoa marraztuko dugu.

---



*f* Operaren ideia nagusia aukeratuko dugu, ideia-jasa eginez.

---

---

*f* Operaren eszenografia marraztuko dugu, hau da, eszenatokian egongo diren elementuak. Libretorako aukeratu dugun ideia nagusian oinarrituko gara.



*f* Operako pertsonaien izenak asmatuko ditugu; hiruzpalau nahikoa izango da. Horrez gain, jantziak marraztuko dizkiegu.


*f* Libretoa idatziko dugu koadernoan; operaren ideia nagusia garatu, eta sortutako pertsonaiak erabiliko ditugu. Oso prozesu luzea ez izateko, esaldiren bat idatziko dugu pertsonaia bakoitzarentzat.

*f* Lau pertsonaien hitzentzako doinua asmatu eta oholtzara nondik aterako diren pentsatuko dugu.

*f* Eszenografian eta pertsonaientzat diseinatutako jantzietan marraztu ditugun elementuak sortuko ditugu.

*f* Emanaldiaren kartela diseinatuko dugu; gutxienez, honako hauek izan behar ditu: izenburua, ordua, lekua, marrazkia.

*f* Ausartuko zarete entsezera eta antzeztera?



# Ópera de Cámara de Navarra

